



SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIA ERAKUNDE AUTONOMIADUNAREN ARTEZKARITZA

KONTSEILUAREN EZOHIKO BILERAREN AKTA

2018ko URRIAREN 18

Santurtziko Udaletxeko Bilera aretoan aipatutako datan goizeko hamabiak eta berrogeita bostean bildu da, horretarako alde zuzenetik Presidente jaunak hala deituta, ezohiko bileran Erakunde Autonomiadunaren Artezkaritza Kontseilua eta ondorengoak agertu dira:

Presidentea: Danel Bringas Egilior jna.

Bokalak:

Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn. Euzko Abertzaleak Udal Taldea

Cristina Senarriaga Rojo and. Euzko Abertzaleak Udal Taldea

Joseba Ramos Arias jn. Euzko Abertzaleak Udal Taldea

Aitor Unanue Esteban jn. Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea

Endika García Sáez jn. EH Bildu Udal Taldea.

Pedro Miguel Lucena Balda jn. Sozialistak Udal Taldea.

Jonatan Sánchez Fernández jn. Atxiki gabeko zinegotzia

E.A.aren zuzendaria: Cristina García Pérez and

Kontu-hartzaile eskuordetua: Jose Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordea: José Fernando García Pañeda jn.

Saioari hasiera eman dio Presidente jaunak deialdiko gai-ordenean dauden gaiak aztertzeko.

1. 2018ko EKITALDIKO ORDAINSARIAREN GEHIKUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Kontseiluburu jaunak 2018rako erakunde autonomiaduneko langileen soldata gehitzeko proposamenaren berri eman die kideei. Gai honi dagokion dokumentazioa alde zuzenetik bidali zaie batzarkide guztiei.

Debatearen ostean Kontseiluburuak bozketari hasiera eman dio

Presidente jaunak bozketari ekin dio eta Artezkaritza Kontseiluak, atxiki gabeko zinegotziaren eta EH Bildu Udal Taldeko ordezkariaren abstentzioarekin, onartu egin du 2018ko ekitaldiko ordainsariaren gehikuntza onartzea.



2. SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIAREN 2019RAKO AURREKONTU PROIEKTUARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Kontseiluburu jaunak 2019 ekitaldirako autonomiadun erakundearen aurrekontu-proiektuaren berri eman du. Gai honi dagokion dokumentazioa aldez aurretik bidali zaie batzarkide guztiei.

Kontseilua jakinaren gainean geratzen da.

3. SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIAREN 2019. EKITALDIRAKO AURREKONTUA PROPOSATU ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Debatearen ostean Kontseiluburuak bozketari hasiera eman dio

Presidente jaunak bozketari ekin dio: Presidenteak, Euzko Abertzaleak Udal Taldeko ordezkariak eta atxiki gabeko zinegotziak aldeko botoa eman dute (lau boto); EH Bildu, Sozialistak eta Sí Se puede Santurtzi Udal Taldeek abstentzioa agertu dute (3 boto). Horrela bada, Artezkaritza Kontseiluak onartu du Santurtziko Udal Euskaltegia autonomiadun erakundearen 2018 ekitaldirako aurrekontua.

4. SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIKO PLANTILLA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA PROPOSATU, EBATZI ETA UDALEKO KULTURA ETA EUSKARA ARLORA BIDALTZEA.

Gai honi dagokion dokumentazioa aldez aurretik bidali zaie batzarkide guztiei.

Debatearen ostean Kontseiluburuak bozketari hasiera eman dio

Presidenteak eta Euzko Abertzaleak Udal Taldeko ordezkariak aldeko botoa eman dute (hiru boto); atxiki gabeko zinegotziak aurkako botoa eman du eta EH Bildu, Sozialistak eta Sí Se Puede, Santurtzi Udal Taldeek abstentzioa agertu dute (3 boto). Horrela bada, Artezkaritza Kontseiluak onartu ditu Santurtziko Udal Euskaltegia autonomiadun erakundearen 2019 ekitaldirako plantilla eta lanpostuen zerrenda.

Saio honen grabazioa hurrengo esteka honetan dago:

<https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/OzpRnyXD72f4Ykd>

Eta akta: <https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/51DODBNJA7rXeXZ>

Ez dago aztertzeke beste gairik eta bukatutzat eman du Presidente jaunak goiburuko eguneko ordu batean. Horren guztiaren fede ematen dut, Idazkari eskuordea naizenez.

Presidentea
Danel Bringas Egilior

Idazkari eskuordea
Jose Fernando García Pañeda